

JARRAIBIDEAK:

Bi ariketa aurkezten dira, bat aukeratzeko: A aukera eta B aukera. Biek egitura bera dute. Ikasleak horietako BAT aukeratu beharko du.

A AUKERA

1. zatia (2 puntu; 0,5 termino bakoitzeko).

Definitu, garbi eta zehatz, termino hauetatik soilik 4: Akuiferoa, Modelatu karstikoa, Aire-masa, Alturako arrantza, Monolaborantza, Maastricht-eko Ituna.

2. zatia. Gaia: "Garraioak Espainian" (4 puntu gehienez ere). Garatu gaia kontuan izanda honako alderdi hauek:


- Garraio sistemaren ezaugarriak.
- Lurreko sareak.
- Garraioak Nafarroan.

2. zatia: Ariketa praktikoa (4 puntu gehienez ere).

Komentatu behean duzun grafikoa, honako galdera hauei erantzunez:

- Temperaturen eta prezipitazioen bilakaera, urtean zehar. Bilakaera horretan eragiten duten faktoreak.
- Klima-mota, eta, gutxi gorabehera, kokapena Espainian.
- Klima-mota horrek landaredian eta ibaietan daukan eragina.

Urteko prezipitazioa: 1215 mm. Urteko batez besteko temperatura: 14,1° C



	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
P.(mm)	123	104	105	125	89	62	52	72	85	135	146	117
T. °C	9,5	9,9	10,7	12	14,6	17,1	19,4	19,9	18,3	15,4	12,2	10,7

B AUKERA

1. zatia (2 puntu; 0,5 termino bakoitzeko).

Definitu, ahalik eta zehaztasun handienarekin, honako termino hauetatik soilik 4: Berotegi-efektua, Tanta hotza, Landaredi higrofiloa, Handizkaria, Migrazio-saldoa, Luberritzea.

2. zatia. Gaia: "Baliabide hidrikoak Espainian" (4 puntu gehienez ere).


Garatu gaia kontuan izanda honako alderdi hauek:

- Uraren erabilerak Espainian.
- Baliabide hidrikoen banaketa.
- Nafarroako baliabide hidrikoak.

3. zatia. Ariketa praktikoa (4 puntu gehienez ere).

Behean duzun mapa ikusirik: Espainiako hiri-aglomerazioen banaketa espaziala.

- Aipatu Espainiako hiri-aglomerazioen banaketa espazialaren ezaugarriak.
- Deskribatu mapan azaltzen diren hiri-ardatz nagusiak.
- Esan zein diren 250.000 eta 500.000 arteko biztanle-kopurua daukaten hiri-aglomerazioak, eta aipatu zein Autonomia Erkidegotan dauden.



Espainiako hiri-aglomerazioen banaketa espaziala.